

DURANGO. Sartu-ren Durangoko egoitzeak 652 pertsonari lagundu eutsen 2001ean

Gizarteratzea helburu

Formazinoan eta enpleguan diharduen Sartu Federazioak egoitza barria inauguratu dau

Aitziber Basauri

Formazino eta enplegu alorrean behar egiten dauen Sartu Federazioak egoitza barria inauguratu barri dau Durangon. Halandabe, badira hilabete bi bulego horretan diharduela. Izan be, Kanpantorrostetako Etxe Soziala laga eta jarraian ipini eben martxan egoitza barria, Murueta Torre auzoan. Orain arte moduan herritarrek gizarteratu eta beharra topetako laguntzea emoten jarraituko dabe bulegoan, Sartuko arduradunek azaldu dabenez. Bide horretatik, bulego barriagaz zerbitzu hobea emotea itxaroten dabe; «izan be, egoitza handiagoa da eta eskurago dago», dino Sartuko zuzendari Fernando Consuegrak.

Herritarren gizarteratzea dauka helburu Sartuk

Hainbat arazo dala medio — gizarte arazoak, kulturalak, ekonomikiak, lan arlokoak...—, lan merkatuan sartu eta gizarteratzeko gitxietsiak diran herritarrek gizarteratzea dauka helburu Sartuk. «Kudeaketa behar ona ezeze, ekonomia solidarioan oinarritutako balio eta praktikak be bateratu gura doguz, holan gizarte gizatiarragoa eratu», dino Consuegrak. Bide beretik egin dau berba Durangoko alkate Pilar Ardanzak. «Gizarte barneratzaileagoa eta aktiboagoa lortu behar dogu, garapen ekonomiko-sozial orekatuagoa bultzatuta». Sartu Federazioak lehendakari Jabier Lobatok espazio «iristerraza»



AITZIBER BASAURI

Dantzarien saioa be izan da Sarturen egoitza barriaren inaugurazio ekitaldian.

eta «zabala» izan daien gura dabela azaldu dau.

BBK Lanbidean Fundazioak eta Aldundiko Gizarte Ekintzak lagunduta zabaldu dabe Durangoko Sarturen egoitza barria; eta, 250 metro koadrotan, Enplegu Zentroa, orientaziorako gela bi, batzar aretoa, erabilera askotako gelea eta irakasle gelea batzen dauz, besteren artean. Egoitza horrek Durangaldea, Busturialdea, Lea-Artibai, Debagoiena eta Debabarrena daukaz lan esparru. Sartuk, 1990ean sortu zanetik, Gasteiz, Bilbo eta Donostian be badau-

kaz egoitzak. Bulegootan orientazinoa, formazinoa eta enplegua bultzatzea daukie lan esparru, besteak beste.

Durangoko bulegoak, igaz, 652 herritarri lagundu eutsen, Sartuko arduradunek adierazo dabenez. Horreetatik 244 pertsonak lan kontratua izatea lortu dabe; eta beste 13k autoenplegura jotzea erabagi dabe. Etorkizunari begira daukiezan egitasmoen barri be emon dabe. Enplegu Zentroa eratu dabe, Durangoko Udalagaz, Lan Orientabiderako Euskal Zerbitzuagaz eta Langai-gaz

batera. Herritarrek beraien lan bilaketea antolatu daien hainbat bitartekari eskaintzen jakez bertan. Horrezaz ganera, etengabeko ikaskuntza-tailerren sarea eta laneratzeko enpresak sustatzea finkatu gura dabe.

Inaugurazio ekitaldian izan dira, Durangaldeko Mankomunitadeko lehendakari Marian Larrauri, Gizarte Ongizate sailburorde Angel Elias; Gizarteratze sailburorde Manuel Vigo; Aldundiko Gizarte Ekintza saileko zuzendari Iñigo Pombo eta BBK Fundazioak kide Jabier Guezuriaga.

ZORNOTZA. Diputazioak zeintzuk «neurri legal eta administratibo» hartu behar dauzan galdetu dau PPK

Larrean ebagitako aretxen ganean azalpenak eskatu deutsoz Bizkaiko PPK Foru Aldundiari

A.B.

Zornotzako Larrea auzoan «kontrol barik» ebagitako arbolan ganean balorazinoa egin daien eskatu deutso Foru Aldundiari Bizkaiko Alderdi Popularrak. Era berean, Markinan —Edorza inguruan— moztutako arbolan ganean azalpenak be eskatu dauz. Bide horretatik, Nekazaritza diputatu Patxi Sierra Sesumagak Batzar Nagusietan agerraldia egin daien eskatu dabe.

Prentsa ohar baten jakinara-

zo dabenez, Bizkaiko PPKo arduradun Arturo Aldekoak Aldundiak zeintzuk «neurri legal eta administratibo» hartuko dauzan galdetu dau. Era berean, «ebagitako arbolak beste leku batzuetara eroateko» edo «kontserbazinoa bultzatzeko» Diputazioak hartu dauzan neurrien ganean azalpenak eskatu dauz.

«Ingurumenean kalte gogorra»

«Zornotzan hainbat ehundako aretx ebagi dira, 20-30 urte bitartekoak, Larrean hainbat errepide eregiteko. Bertan 136

txalet eregitea aurreikusten da», azaldu dau Alderdi Popularrereko ordezkariak. «Igaz be, inguru horretan 15 aretx ebagi zira salatuta zan, horreetariko batek 100 urte zituan. Boroan dagoanagaz batera, Zornotzako baso eremu bakarrenetarikoa da Larrea. Eta emoten dau ingurumenean kalte gogorra egiten diharduela, industria eta urigintza garapenerako egitasmoen bitartez». Aldekoak dinoanez, Markinan, 350 arbolatik gora ebagi dabez, industri poligono baten 2. zatia eregiteko.

Nekazaritza diputatuak Batzar Nagusietan agerraldia egin daien eskatu dau PPK. «Zornotzan eta Markinan gertatutakoaren azaldu eta kalteak baloratu daiezan. Era berean, arbolen kontrol bako ebagite horreen aurrean Aldundiak hartu behar dauezan neurri legal eta administratiboen barri emon daien», dino Aldekoak. Baso horreek babesteko eta kontserbatzeko —edo ebagitako arbolok udalerriko beste eremu batera eroateko— Nekazaritza sailak hartu dauzan neurrien ganean azalpenak be eskatu dauz.

Zornotzako Eguzkik be Larrean 500 aretx ebagi dirala salatuta dau orain aste batzuk.

LABURREAN

DURANGO

Euskal Jaia ospatuko dabe San Antonio-Santa Rita Ikastetxean

Durangoko San Antonio-Santa Rita ikastetxean Euskal Jaia ospatuko dabe astion. Gaur 17:15erako karaokea eratu dabe; eta, bihar, barritz, irrintzi eta bertso lehiaketean parte hartzeko aukerea be izango dabe eskolaumeek, ordu berean. Barrikuan agurtuko dabe Euskal Jaia. Halandabe, makina bat ekitaldi eratu dabez arrastia igaroteko. Zine emonaldia izango da 15:00etan; eta 15:30ean, pertsonaia famatuen ganeko berbaldia izango da. Ostean, 17:00etan, herri kirolak izango dira, eta, jarraian txokolatadea trikitilariak alaituta. Arrastiko 18:00etan, Luhartz taldearen eskutik egongo dan erromeriagaz amaitutzat emongo da Euskal Jaia.

ELORRIO

Udalak 2.404 euro erabiliko dauz Beittu Euskeraz ekitaldietan

Elorrioko Barriketan Eusker Taldeagaz batera eratutako Beittu Euskeraz egitaraua osatzeko 2.404 euro erabiliko dauz Udalak. Euskerea sustatzeko helburuagaz martirako eratutako ekitaldietan, Xabier Montoyak, Ramon Agirrek, Ander Lipusek eta Kirmen Uribek hartuko dabe parte.

AGENDA

DURANGO

Erakusketea: Rock & Roll argazki erakusketea Juxeren eskutik, Berbaro tabernan. Zezeilaren 17ra artean.

Berbaldia: *Rompamos el cerco de la exclusión* berbaldia eskainiko dau gaur Enric Celayak. BBVko Aretoan izango da 19:30ean.

ERMUA

Erakusketea: Herriko grafitiak erakusketea Teresa Murga erakustokian. Herrian dagozan graffitiei ikusteko aukerea emoten dau, argazkien bitartez. Zezeilaren 15era artean izango da zabalik, 18:00etatik 20:00etara

ZORNOTZA

Erakusketea: Round Jazz argazki erakusketea ikusi leiteke Zornotza Aretoan. Jose Manuel Hornak egindako argazkiak zezeila amaitu artean izango dira bertan.

IURRETA

Matrikulazio epea: Datorren 2002-2003 ikasturterako, Maiztegi Herri Eskolan eta Juan Orobioa Institutuan matrikulatzeko epea zabaldu dabe.